

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroaren parte-hartze tailerraren akta

Gaia: Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Plana, eztabaidan.

2008ko martxoaren 3an.

Legazpiko udaletxean.

18:30tik 20:15era.

Mugikortasun iraunkorra gizarteak askatasunez mugitzeko, komunikatzeko, merkaturatzeko eta harremanak izateko dituen beharrak asetzeko ahalmena da; baina eginbehar horretan giza garapenerako beharrezkoak diren bestelako baloreak eta ingurumen-kalitatea, orain eta etorkizunean, sakrifikatu gabe.

World Business Council for Sustainable Development.

Legazpiko Udalak mugikortasun iraunkorraren eredu baterantz egin nahi du aurrera. Eta horretarako, Udala, 'Ingenieria Endara' enpresaren laguntza teknikoarekin, Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurrerakina lantzen ari da.

Batez ere, Aurrerakin hori gertutik eta zehatz ezagutzeko, zalantzak argitzeko eta gure iritzia emateko asmoarekin gaur hemen bildu da Legazpiko Agenda 21eko Foroa. Horrekin parte-hartzeko gune honetatik gure aletxoak jarri nahi diogu Planari eta auzo desberdinetan eta udalerriko agente desberdinekin egin diren bilera informatiboekin bat egiten dugu. **Gure ekarpena datorren astelehenerako, martxoak 10, aurreikusita dugun bigarren lan-saioarekin osatuko dugu;** bertan, guztion artean, aurkeztu zaigun Dokumentua hobetzeko proposamenak egiten saiatuko gara.

Horrelako Plan handi baten aldeko apustua egiteak bide berri bati egitea baita eta bide hori konbentzimenduz, konpromisoz eta indarrez egin behar da... **Eskerrik asko guztiei plana diseinatzen laguntzeagatik!!! Eta datorren astelehenean hemen izango gaituzue zain lanean jarraitzeko!** Guztion lana baita "amets" bat, ustezko plana, Legazpin benetakoa bihurtzea.

Manuel Fernández (Buztintegi) ♦ Junkal Fernandez ♦ Josune Makaia (UGGASA) ♦ Eugenio Gil ♦ Sole Aristegui ♦ Juan Carlos Altelai (Harri Urdin Brinkolako Auzo Elkarte) ♦ Juan Ramon Larrañaga ♦ Maite Antia ♦ Feli Nuñez ♦ Ana Manzanos (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Fernando Martinez de Albéniz ♦ José Luis Cia ♦ Rafael Gómez ♦ Floren Gutierrez ♦ Bixente Garmendia ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Agustina Romarategi (Eiluz) ♦ Lurdes Etxaniz (Eiluz) ♦ Jose M^a Elustondo ♦ Montserrat Vallejo ♦ Isabel Vallejo ♦ Jose Antonio Lizarralde ♦ Joakin Balerdi (Harri Urdin Auzo Elkarte) ♦ Mariano Guerreiro (Burdinola) ♦ Anastasio Clavo (Bellota Herramientas, SA) ♦ Ion Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Koka gaitezen... **Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Plana: zein da bere helburua?; zeintzuk dira proposamen nagusiak?**

Endara enpresako Narciso Iglesias jaunak ideia nagusiak azaldu dizkigu, planoak, datuak eta irudi birtualak erabiliz. Modu berean, Foroak egin dituen hainbat galdera erantzun ditu eta zalantzak argitu ditu. Horren guztiaren laburpena? Segidan¹.

Oro har, zein da Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren xedea?

Hauek dira helburu nagusiak:

- Bizi-kalitate handiagoa lortzea.
- Oinezkoen eta bizikletarien mugikortasuna sustatzea.
- Garraio publikoaren erabilera sustatzea.
- CO₂ isurketak murriztea.
- Gas kutsatzaileen isurketak gutxitzea.
- Bide-segurtasuna gehitzea.
- Kaleetan zarata-bolumena gutxitzea.
- Energia-konsumoa gutxitzea.
- Herritarra sentsibilizatzea, mugitzeko dituen ohiturak alda ditzan.

Helburu horiek lortzeko, zeintzuk dira Planak planteatzen dituen jarduketa-lerroak eta proposamenak?

Planak bost jarduketa-lerro ditu; honako hauek:

1. Trafikoaren antolaketa
2. Aparkalekuak
3. Oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoentzako ibilbideak eta garraio publiko bertikala
4. Bidegorriak
5. Garraio publikoa (trena eta errepidekoa)

Laburtuz, jarduketa-lerro bakoitzean egin diren proposamen nagusiak jaso ditugu hurrengo laukietan¹:

¹ Dokumentu honetan ideia nagusiak jaso dira, modu laburrean. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, Legazpiko Udalaren Web orrian kontsulta daiteke dokumentazio teknikoa:; <http://www.legazpiko-udala.info/web/cas/01planMovilidad.shtm>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean




1. Trafikoaren antolaketa

Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak? Proposatutako neurri nagusiak

- Dauden bideak erabiliz, Legazpiko herritarrentzako bide nagusia izango den **norabide bakarreko barne-zirkuitua**; zirkuitu hori erabiliko da kanpora joateko eta barruko ibilbideak egiteko (1. planoan ikus daitezke bere ibilbidea).
- **Telleriartera joateko korapiloa hobetzea** ("itxoiteko" hirugarren bidea eginez).
- **Brinkolarako sarbidean biribilgunea** edo.

OHARRA: Xehetasunak (ibilbidea, sarbideak eta irtenbideak...) dokumentazio teknikoan kontsulta daitezke Web orri honetan <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/MugikortasunPlana/TraficoEstacionamiento.pdf>



2. Aparkalekuak

Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak?

- **Legazpin aparkatzeko dauden benetako beharrak sakontasunez aztertzea** (azertu diren datuak ez datoz bat).
 - Udaletxeko atzealdeko aparkalekuaz gain, **aparkatzeko bi gune berri sortzea** (ikusi kokapena 1. planoan):
 - Latxartegin (Ikastolak, Latxartegi Aretoak, Gizarte-zentroak eta Osasun-zentroak osatzen duen plazako lorategipean).
 - Urtatzolaren garapena.
- Oinezkoen eta bizikletarien alde egiteko proposatu diren neurriekin kenduko diren aparkalekuak berreskuratzea da helburua.
- Ahal izanez gero, zonalde horietan auto-karabanak aparkatzeko lekua egokitzea.

OHARRA: Xehetasunak dokumentazio teknikoan kontsulta daitezke Web orri honetan <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/MugikortasunPlana/TraficoEstacionamiento.pdf>



3. Oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoentzako ibilbideak eta garraio publiko bertikala

Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak?

Oinezkoen mugikortasuna:

- **Oinezkoentzako guneak** sortzea (batik bat oinezkoentzako izango diren gunean):
 - Kale Nagusia. Kale osoa oinezkoentzat egokitzea proposatu da: lehenengo zatia oinezkoentzako bakarrik izango litzateke eta bigarren zatian autoak sartzea onartuko da baina zeregin zehatzetarako bakarrik.
 - Nafarroa kalea.
 - Latxartegi (Kultur Etxe ingurunea). 30. Area
 - Laubide
- **Ingurumen-eremuak** sortzea:
 - Patrizio Etxeberria kalea
 - Arantzazu auzoa eta San Jose auzoa
 - San Martin auzoa
 - San Ignazio auzoa

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak?


Oinezkoentzako ibilbideak:

- **Oinezkoentzako ibilbideak** sortzea (ikusi 2. planoan ageri diren bideak):
 - A ibilbidea: hirigunea eta Laubide kalea elkartzen duena.
 - B ibilbidea: Laubide - San Ignazio auzoa eta Arantzazu auzoa bereizten duen bidea - San Jose auzoa - San Martin kalea – Juanastegi.
- **Mirandaolatik Brinkolara doan bidea** hobetzea.

Garraio publiko bertikala:

- **4 igogailu** jartzea (ikusi 2. planoan):
 - Latxartegi eta Juanastegi artean (igogailu inklinatua).
 - Laubidetik Urtatza auzoko goialdera (igogailu inklinatua).
 - Latxartegiko igogailua iritsiko den lekutik San Martin-San Ignazio auzoetara (igogailu arrunta).
 - Tren geltokira iristeko (igogailu bertikala), geralekua tren geltokia izatera iristen bada.

OHARRA: Xehetasunak dokumentazio teknikoan kontsulta daitezke Web orri honetan <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/MugikortasunPlana/PeatonosTransporteVertical.pdf>



Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak? Proposatutako neurri nagusiak


4. Bidegorriak

- **Hiri barruan bidegorria** sortzea (ikusi ibilbidea 3. planoan): bidegorriaren helburua herri barruko joan-etorriak erraztea eta bizikletaz egiteko aukera eskaintzea da; halaber, kanpoko ibilbidearekin lotzea bermatuko da.
- **Kanpoaldean bidegorria** sortzea (ikusi ibilbidea 3. planoan): Zumarragara doan bidegorriarekin lotuko da eta erreka gurutzatuz industrialderaino iritsiko da.

OHARRA: Xehetasunak (ibilbidea, bidearen zabalera eta bestelako xehetasunak) dokumentazio teknikoan kontsulta daitezke Web orri honetan: <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/MugikortasunPlana/ViasCiclistas.pdf>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Zer proposatzen du Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak? Proposatutako neurri nagusiak

5. Garraio publikoa (trena eta autobusa)

Garraio publikoa-trena:


- Hirugarren trenbidea egingo litzateke (ikusi 1. planoan), **geralekua tren-geltokia bihurtuz**. Horrela, aldiriko trenak Legazpin aparkatuta gera daitezke hurrengo zerbitzua eskaintzeko prest; modu horretan zerbitzuaren maiztasuna hobeto daiteke.
- Geltokira iristeko igogailu bertikala jarriko litzateke.

Garraio publikoa-autobusa:

- **A aukera**: Legazpi-Zumarraga ibilbidea osatzeko eskaintzen den autobus zerbitzuarekin ahalik eta zonalde gehienetara iristea (ikusi ibilbidea 4. planoan).
- **B aukera** (5. plano): Zumarraga-Legazpi ibilbidea murriztea eta Industrialdeko biribilgunean itzulia egin zuzenean Zumarragara joateko. Herri barruko ibilbidea egiteko mikrobusa jartzea.


OHARRA: Xehetasunak dokumentazio teknikoan kontsulta daitezke Web orri honetan <http://www.legazpiko-udala.info/web/images/Agenda21/MugikortasunPlana/TransportePublico.pdf>

1. Planoa. Plano orokorra.




Legazpiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze Foroa.
2008ko 2. tailerra, martxoaren 3a.

2. Planoa. Oinezkoentzako ibilbideak.



Legazpiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze Foroa.
2008ko 2. tailerra, martxoaren 3a.

3. Planoa. Bidegorriak




Legazpiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze Foroa.
2008ko 2. tailerra, martxoaren 3a.


Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

4. Planoa. A aukera, errepideko garraio publikoa (autobusa).



5. Planoa. B aukera, errepideko garraio publikoa (autobusa).



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Gure hasierako ekarpena: **Agenda 21eko Foroak, zein iritzi du Aurrerakin honetaz?**

Plana ikusi eta gero, zein kontzeptu, osagai, proposamen, ... dugu gogoko? Aldiz, zer ez dugu garbi ikusten edo, zer uste dugu hobe daitekeela?

Prometea taldeak proposatutako lan-dinamika jarraituz, bi galdera horiek erantzuten saiatu gara, banaka lehenbizi eta taldean ondoren. Eraitza, planoetan jasota geratu da (eranskailu berdeek gauza positiboak adierazten dute eta arrosek aztertu edo hobe daitezkeenak).



Ikus dezagun orain atalka, parte hartu duten pertsonen azaldu dituzten gaiak.

1. Trafikoaren antolaketa		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Aiztonagako igoera-jeitsiera eta bidegurutzea (arriskutsua). 	●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Mauleongo zeharbidea. 	●●
	<ul style="list-style-type: none"> Lanaren hiribidean norabide bikoitza ezarri. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> San Ignazio auzoaren irteera. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Santikutz eta Olaondo bitarteko errotondan norabide bikoitza. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Kale Nagusian auto-gurutzea. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroa kaletik irteera txarra. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Txoko pareko errotondan kamioien igarobidea jasaten jarraitzen da. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Itxaropenera igotzeko modua hobetzea. 	●
2. Aparkalekuak		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Gogokoa dugu...	<ul style="list-style-type: none"> Aparkaleku berrien proposamena. 	●●
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekuak kentzen dira (gehiago behar dira) 	●●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Segurtasuna aparkalekuetan. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekuak errentagarri egin. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekua Plazaolan. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekua Latxartegin. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Aparkalekua Itxaropen auzoan eta ez Kultur Etxean. 	●

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

3. Oinezkoen mugikortasuna eta oinezkoentzako ibilbideak eta garraio publiko bertikala		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Gogokoa dugu...	<ul style="list-style-type: none"> Oinezkoentzako guneak, 30. Area eta ERVEN guneak. 	●●●●●●●●●●●●●●●●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Herriaren goialdera iristeko igogailuak. 	●●●●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Espaloi zabalak. 	●
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Osasun-zentrorako sarbidea (arazoa da batik bat mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat) 	●●
	<ul style="list-style-type: none"> 30. Arean ez dira leku zehatzak azaltzen oinezkoek bidea gurutza dezaten. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> 30. Area Patrizio Etxeberria kalean. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Hainbat auzotara iristeko sarbideak (Arantzazu...) 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza-guneak oinezkoen eremuetan. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Santikutz: espaloiak zabaltzea. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Txorroneako oinezkoen pasabidea. 	●

4. Bidegorriak		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Gogokoa dugu...	<ul style="list-style-type: none"> Proposatutako bidegorriak eta bizikletarekin ibiltzeko guneak. 	●●●●●●●●
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Telleriarte eta Brinkola auzoetara iristeko lotura (Industrialderaino jarraitu). 	●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Horrenbeste erabiliko al dira bizikletak eta bidegorriak? 	●●
	<ul style="list-style-type: none"> Saturninoko errotondaren bidegurutzean egin den trazaketa berrikusi. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Biegorrien proposamena. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Zumarragara doan bidegorria bukatzeko lanak arindu. 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Bidegorria industrialdearekin lotu (Urola kalea). 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Bidegorria Patrizio Etxeberria kaletik? 	●
	<ul style="list-style-type: none"> Autoen eta bizikleten abiadura. 	●
<ul style="list-style-type: none"> Oinezkoak eta bizikletak elkarrekin. 	●	

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

5. Garraio publikoa (trena eta autobusa)		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Gogokoa dugu...	<ul style="list-style-type: none"> B aukera (mikrobusa). 	●●●●●●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Tren geltokirako proposamena, trenen maiztasuna igoz. 	●●●●
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Geltokiaren proposamena (Brinkolaraino eramatea, asmo hori bat baitator Aizkorriko parke naturalaren sarrera izatearekin). 	●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Gainera, autobusarekin 30 minuturo Zumarragara joateko aukera badugu, beharrezkoa al da geltokia? 	●●●●●
	<ul style="list-style-type: none"> Autobus-aldaketa Urtatza auzora joateko. 	●
Bestelako gaiak		
Gaia azaldu duten pertsonen kopurua (bolatxo kopurua)		
Ez dugu garbi ikusten eta sakondu beharra dagoela uste dugu....	<ul style="list-style-type: none"> Bide-hezkuntza noizko? 	●●
	<ul style="list-style-type: none"> Zer da premiazkoa? Nola ezarriko dira lehentasunak? 	●

Ikus daitekeenez, xehetasunak dira eta gai horiek datorren astelehenean, martxoaren 10ean, egingo dugun bileran aztertuko ditugu; egun horretan aipatu gaiak Legazpiko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Aurrerakinean sartu diren eta/edo berraztertu beharreko gaiak diren ikusiko dugu.

Hori da helburua: Planaren lehen dokumentua hobetzea eta geure egitea, ondoren poliki-poliki gauza dadin.

Martxoaren 10ean, berriz ikusiko dugu elkar!

ETA ESKERRIK ASKO!

Plan honen aletxo bat Agenda 21eko Foroak egin zituen mugikortasun tailer haietan erein genuen eta...